

komunitate batean jaiotzen direnen kopuru proportzionala. Normalean, jaiotakoen kopurua biztanleria osoarekin konparatzen da. Milakotan ematen da.

jaiotze. Ik. **jaiotza.**

Jaipur. Indiako hiria, Rajastango hiriburua; 1.455.000 bizt. Merkatal eta industrigunea (ehunak, elikagaiak, marfilezko eta marmolezko tailak). Unibertsitatea. Bere edertasunagatik ezaguna, *hiri arrosa* ere deitu ohi zaio. Eraikuntza garrantzitsuenak aire zabaleko behatokia eta Haizeen jauregia dira, biak XVIII. mendekoak.

jaistaile. iz. eta izond. Zerbait jaisten edo beheratzen duena.

jaitsaldi. iz. Beherakada; zerbaitek beherantz egiten duen aldietako bakoitza. *Oraingoan izugarritzko jaitsaldia du pertsona horrek.*

jaits(i). da/du ad. **1.** Toki batetik beherago dagoen beste batera joan edo eraman. *Zuhaitzetik jaitsi da. Han jostatzen ari ziren mutikoei saski bat jaisten zien sokatik zintzilik, eta bi edo hiru pezeta, goxoak erosteko.* **2.** Gaitz, kolpe, etab.en ondorioz handituta zegoen gorputzeko zatia bere onera etorri. *Belaunean neukan handitua jaitsi zait.* **3.** (hed.) Zenbait magnituder buruz, neurria edo balioa txikiagotu. *Temperatura jaitsi egingo da bihar.* ♦ -EN ERRANERA JAITSI. (Ipar.) Norbaiten esanera etorri. *Besteren kontseilura jaisten ez dena.*

jaitsiera. iz. **1.** Jaisteko ekintza eta horren ondorioa. **2.** KIR. Eski alpinoko modalitate edo probarik azkarrena. Ibilbidean ate gutxi egoten dira, 3 km-ko luzera behar du gutxienez eta desnibela 1000 m-koa izatera irits daiteke.

jai(tu). du ad. Jai baten bidez ospatu.

Jaitz. Nafarroako udalerrria (Lizarrako merinda-dea); 103 bizt. (jaiztarrak). I-an Gofiñ, E-an Gesalatz eta Bidaurreta, H-an Girgillano eta Gesalatz eta M-an Gesalatz ditu mugakide. Udalerriko ekonomi iharduera nagusiak nekazaritza (zerealak, zuhainak), basogintza eta gatz-ustiaketa dira. Lanean ari den populazioaren ia bi heren



Jaitz

lehenengo sektorean dabilta, laurdena eskas hirugarrenean eta % 15 inguru bigarrenean. Biztanleriak apurka behera jo du XX. m.aren bigarren erdian hasita; 1950ean 346 biztanle ziren eta 1991n 103.

Historia. Iruñeko apezpikuari ordaintzen zizkion petxak XII. mendeko agiriak diotenez. XIII-XIV. m.etan gatzagak zituzten hemen Irantzuko eta Iratxeko monasterioek. Bertako gaztelua berriz, erregearen eskuetan ez bazen Iruñeko katedralarenetan egon zen: Gartzia Ramirezek eman zion katedralari 1135ean, Antso VII.ak kendu zion honi eta atzera Teobaldo II.ak itzuli 1256an; gero berriz ere koroaren eskuetan gelditu zen. Administratiboki Gesalatz ibarrari loturik egon zen 1852an banandu eta udalerrri independente egin zen arte. XIX. m.aren bigarren erdian ikatz-meatzeeen ustiapena hasi zen Jaitzen.

Artea. San Migel eliza XVI. m.ko eraikuntza izan arren, garai barrokoan egindako berritze-lanengatik erabat itxuraldatua dago. Lau zatiko nabe bakarra du eta kanoi-ganga barrokoz estalitako burualde pentagonalak dituen arku zorrotzeko atea eta beronen gaineko armarrria. Adreiluzko portiko barrokoaren azpiko erdi-puntuko arkuko portada, XVII. m.ko dorrea eta Joan I.a Inbertok 1576an eraikitako erretaula erromanista ditu aipatzekoak.

San Pedro ermita gotikoa XIII. m. an eraiki zen. Nabe bakarrekoa da eta abside erdizirkularra du, esfera-laurdeneko gangaz estalia; absidera iristeko arku zorrotzaren azpitik igaro behar da. XVI. m.ko erdi-puntuko arkuko portada du.

Jaizkibel. Gipuzkoako mendia, itsasertzean, Pasaia eta Hondarribia artean (Bidasoa Beherea); 545 m. Guadalupeko Amaren santutegia dago bertan. Trikuharriak eta tumuluak. Gotorlekua.


Jaizubia. Hondarribiko auzoa (Bidasoa Beherea, Gipuzkoa).

jak. iz. ZOOL. Bobidoen familiako ugaztun artiodaktiloa, lurreraino iristen den ilaje sapatso gorrixka eta adar zilindrikoz hornitua dagoen burua dituen. Himalaian bizi da (*Bos grunniens*).


jaka. iz. Besoak eta enborra aldaketaraino estaltzen dituen jantzia eta alkandoraren edo barnekoaren gainean jartzen dena.

Jaka, Joseba. Euskal kultur eragile eta enpresaria (Zegama, 1948 - Cádiz, 1996). Gaztetatik

liburuak saltzen ihardun zuen. 1973an Zabal liburudenda ireki zuen Baionan lagun batzuekin, Elkar argitaldarekin bateratuz. 1976an, Hego Euskal Herrira itzuliz, bere anaiekin eta zenbait lankiderekin taldean Bilintx liburudenda irekitzeaz gain, liburu-disken banaketarako Zabaltzen enpresa sortu zuen. Elkar argitaletxearen kontseiluko eta eragile izatearekin batera, banaketa eta komertzializaziorako Euskal Kulturgintza enpresaren gerentea izan zen hil arte; horren irabaziak bertan eta euskal kulturgintzan berrinbertituz, hedapen handi eta bizia ematea lortu zuen, banaketa-gune eta liburudenden sare indartsua eratuz, liburu-disken banaketarako enpresarik handiena bihurtzeraino. Euskalgintzako talde eta erakunde ugari babesteaz gain, euskal kulturgintzako hainbat proiektu eta enpresaren sortzean eta sendotzean partaidetza garrantzizkoa izan zuen: horietakoak dira bereziki Euskaldunon Egunkaria (1990), EUSENOR Entziklopedi etxea (1991) eta Klaudio Harluxet Fundazioa (1994); lehen bieta-



Biztanleak: 103 (1991ko errolda)
Azalera (km²): 14,1
Biztanle-dentsitatea (bizt./km²): 7,3
Altitudea hirigunean (m): 683
Euskaldunak (%): 5
Ia euskaldunak (%): 1
Erdaldunak (%): 94



Joseba Jaka

ko administrazio-kontseilukoa izan zen sorreratik hil arte, eta hirugarreneko patronatuko kidea ere bai, Kulturaren Aldeko Euskal Fundaziokoa ez zik. Euskal kulturako militante saiaturia, eragile kementsua eta enpresari bizkorra izan zen. Itsa-soko istripu baten ondorioz hil zen Cádizen.

Jaka-Kortajarena, Txomin. Euskal idazle gipuzkoarra (Berastegi, 1906-93). Apaiza zen. Espainiako Errepublikara garaietan Euskaltzaleak elkarteak antolatutako Eusko Olerti Egunean eman zituen ezagutzera bere lehen olerki-lanak, herri-kutsukoak gaiten eta bertsolaritzaren teknikakoak forman. *Yakintza*-n ere argitaratu zituen bere poesiak (1930-35). *Irri bertsoak* poema-bilduma (1935) eta Enrique García Belloso-ren *Gernikako Arbolaren* itzulpena argitaratu zituen (1963). Francoren altxamenduren ondoren, Argentinara atzerriatu eta han bizi izan zen 40 urtez. Bertan euskara-erdara hiztegi bat argitaratu eta Argentinako abeltzaintzari buruzko liburua argitaratu zituen. *Bizitzan bi goiats*-n ere autobiografikoan aberri eta Jainkoarenganako ibiliak utzi zituen idatzirik. *Rh ezezkorra euskaldunetan* (1990) izan zen argitaratu zuen azken liburua. Gazte zeneko joerari atxikia, garbizea amorratua zen hizkuntz arazoetan. Ez zuen mailegurik onartzen eta euskara guztiz garbia zuen helburu, adierazkortasunaren eta zehaztasunaren kaltean bazen ere.

jakan. *izond.* (B) Gutxi jaten duena, jangartzua.

jakan(du). *du ad.* (B) Jateko gogoia galdu.

Jakarta, lehen *Batavia.* Indonesiako hiriburua, Java irlaren I-an; 8.259.000 bizt. Merkatal eta administrazio-gunea. Industria nabarmen garatu da azken urteetan (metalurgia, ehungintza, kimikoa, automobilgintza, trenbiderako gaiak, zurgintza). Lehen mailako itsas portua dago hiritik 8 km-ra. Jajakerta herri malaysiarra zegoen tokira nederlandarrak iritsi eta Batavia deitu zioten 1619an. Herbehereetako herriekin izaniko merkataritzari esker hiri aberatsa izan zen XVII-XVIII. mendeetan. 1942an japoniarrek hartu zuten eta 1945ean independentzia lortu zuen.

jake. Ik. **jaka.**

jakera. *iz.* (B) **1.** Jateko ekintza. **2.** Zaporea. *Nabarrizko arbiak jakera onekoak dira.*

jaki. *iz.* **1.** Janaria, bereziki bazkari-afarietan plateran edo plater bakoitzean ateratzen dena, eta batez ere horietako nagusia, gehienetan okela. *Artoa errotan, ogia falta, jakia berriz kalean.* **2.** Beita. *Amuani jaki berria ipini.*

jakiara. *adb.* (Ipar.) (zah.) Jakinaren gainean. *Jakiara eta deliberratuak hiltzen dituztenen bekakua.*

jakile. *iz.* **1.** Jakituna, dakiena. *Bere asmoen jakile egin ninduen.* **2.** (Z) Lekukoa. *Jakile faltsu ez naiz izanen, ez jagoitik gezurti.*

jakilego(a). *iz.* (Z) Lekukotasuna, testigantza.

Jakin. Kultur aldizkari euskarazkoa —bihilabete-karia—. Arantzazuko Teologiako ikasle frantziskotarrek sortua 1956an. 1990 arte Arantzazu argitaletxearen izenean argitaratu zen; urte horretatik aurrera Jakinkizunak izeneko enpresak argitaratzen du. Zenbait aldi izan ditu aldizkariak gaien eta aldizkariotasunaren aldetik: 1961 arte lauhilabete-karia izan zen, eta filosofiako eta teologiako gaiak erabili zituen bereziki; bi urtez debekatuta egon ondoren, 1964an agertu zen berriro, hiruhilabete-kari gisa, kultur eta gizarte-gaietara zabaldua; 1969an beste debeku bat izan zuen; 1977an hasi zen agertzen berriro hiru hilabetez behin (1989tik aurrera bi hilabetez behin), kultur aldizkari bihurtuta. Gehienetan gai nagusi bat landu ohi du zenbait bakoitzean, zenbait artikulua eta sail finko txikiagorekin batera. Euskal kultur munduaren inguruko gogoetak, iritzia edota ikerketa-emaitzak plazaratu ohi ditu. Aldizkariarekin batera liburu batzuk ere argitaratu zituen Jakin taldeak; berak sortu zuen UZEIren

proiektua, abiatutako hiztegi tekniko-berezituen saila aurrera eramateko.

1 jakin. *du ad.* **1.** Zerbaiten berri edo ezaguera izan edo eskuratu; zerbait buruzko aski ezaguera izan. *Ba al dakizu zer gertatu den? Pedagogiaz ez dakit ezer.* **2.** Zerbait egiteko gaitasuna izan (delako egitekoak, aditzaren era ez-burutuaren forma, edo -n nahiz -z (hizkuntzen kasuan) kasu-atzizkiak hartzen ditu). *losten ere badakite baina / ardoa edaten hobeki. Ez dakit dantzan. Euskaraz ondo daki horrek.* ♦ **JAKINAREN GAINEAN JARRI.** Norbait zerbait jakinarazi. *Jakinaren gainean jartzearen deitzen zaitut. II JAKINAREN GAINEAN* (egon, esan, hitz egin, egin,...). Jakinik, jakinda, jakitun izanda. *Jakinaren gainean esaten ditu horrelakoak. Jakinaren gainean gaude. Jakinaren gainean hitz egin du.*

2 jakin. **1.** *izond.* Mugatua, zehaztua dena (gehienetan *bat* edo *-a* determinatzaileak daromatza). *Indar jakin bat behar da pisu jakin bat jasotzeko. Zeregin horretarako ordenadore jakin bat behar da, edozeinek ez du balio.* **2.** *izond.* Dakiena. *Gure etxeko berri ez zara oso jakina.* **3.** *iz.* Ezagutza. *Bere jakinean egin du gaizkia. Aitarekin jakinik gabe.*

jakina. *adb.* Esaten dena ezagutzat edo begien bistakotzat hartzen dela adierazteko erabiltzen den hitza. *Lerro hauek, jakina, Londrestik datoz. Egingo al dun hori? —Jakina! Nork egingo din bada bestela?*

jakinarazpen. *iz.* zuz. Prozesu judicial batean edo administratibozko prozedura batean eman den erabakiaren berri interesatuei ematea; erabakiaren berri ematen den agiria bera.

jakinbide. *iz.* **1.** Jakiteko bidea; argibidea. *Herria eta inguruak ongi ikusteko jakinbide eta erraztasun guztiak eman zirkidaten.* **2.** Dotrina, kristau-ikas-bidea. *Kristau jakinbidearen azalpena.*

jakindun. Ik. **jakitun.**

jakinduria. *iz.* Pertsona batek dakizkien gauzen multzoa, bereziki gai jakin batzuei buruzko ezagutza ugari eta sakona.

Jakinduriaren Liburua. Itun Zaharreko liburu deuterokanonikoa, Alexandriako judu batek grekoz idatzia (K.a. ~50). Munduan diharduen Jainkoaren jakinduriaren gorazarrea da liburuaren gaia. Autoreak esana Salomonek esana baillitza ageri da liburuan; horregatik Salomonen Jakinduria ere izendatu izan da liburu.

jakinez. **1.** *iz.* eta *izond.* Ezjakina. *Lehenbizikoa, jakinezi irakastea.* **2.** *iz.* Ezjakintasuna. *Haien jakineza eta gaiztakeria.*

jakineztasun. *iz.* Ezjakintasuna.

jakingabe. (Ipar.) *iz.* eta *izond.* Ezjakina. *Barkatzeak da jakingabeen egiten den hutsa.*

jakingabetasun. *iz.* (Ipar.) Ezjakintasuna.

jakingai. *iz.* Jakingarri den edozer, jakite-gaia.

jakingarri. *iz.* eta *izond.* **1.** Jakitea merezi duena. *Argitasun ugari eta jakingarriak eskaintzen dizkigu txostenak.* **2.** Ezaguna. *Euskaldun irakurleak jakingarri dituelakoan hizkuntza horren gora-beherak.*

3. Ezagumendua. *Han galduta ziren betiko Donostiaren edestiko hainbeste jakingarri.*

jakingura. **1.** *iz.* Jakinmina. **2.** *izond.* Jakinmina duena, kurios dena.



J. Intxausti, J. Azurmendi, J.M. Torrealdai eta P. Agirrebaltzategi **Jakineko** erredakzio-konseilua

		JAKIN					
		ORAINA		IRAGANA		ALEGIAZKOA	
ALDIA →	MODUA	NOR	NORK	NORK	NOR	NORK	NOR
	- AHALA	da kl	T K/N	N e kl H e kl z e kl	eN eN eN	-N e ki -H e ki -I e ki	
			GU ZU ZUe	Gen e kl Zen e kl Zen e kl	eN eN te N	-Gen e ki -Zen e ki -Zen e ki	te
	+ AHALA	da kl	zki TE	z e kl	zki te N	-I e ki	zki te
						N e ki H e ki I e ki Gen e ki Zen e ki Zen e ki I e ki	ke ke ke ke ke te ke te